



AEnkomer ARABAKO MERKATARITZA ETA ZERBITZUETAKO ENPRESARIAK ELKARTEAREN BEKA-DEIALDIA

Enpresaren helburuak lortzeko lan egingo duen lantalde kualifikatu bat osatzea da enpresa baten lehiakortasunaren gakoetako bat. Horregatik funtsezkoa da euren ikasketetan ikasi dituztenak egunerokoan praktikan jarriko dituzten gazteak formatzea.

Horixe da lankidetzeta programa honen helburua: unibertsitatean edota lanbide heziketan titulua eskuratu duten **20** gazteri aukera ematea **AEnkomer-eko enpresa batean praktikaldia** egiteko. Han ikasitakoa sakonduko dute, eta bestelako ezagutza espezifikoa eskuratuko dituzte, normalean ikasketa-programetan aurreikusten ez badira ere, enpresaren munduan funtsezkoak direnak; hala nola, bezeroarekiko harremana edota erakuslehoak apaintzea. Ikasketetan eskuratzen den kualifikazioa eta enpresetan eskatzen dena hurbiltzea da helburua, pertsonak hauek lan merkatuan ahalik eta hobekien integratzeko.

Programa AEnkomer-en konpromisoarekin bat dator erabat: merkataritzaren eta zerbitzuen alorrean formatu diren gazteak lan munduan integratzeko konpromisoarekin, alegia. Merkataritzarekin izango duten lehen harreman hau oso garrantzitsua da gaur egun.

Bekaren ezaugarriak

- **Beka kopurua:** 20
- **Iraupena:** 4 hilabete. 30 ordu lanean AEnkomer-en enpresa batean + 30 orduko formazio osagarria lau mintegiren bidez. Mintegietako gaiak honakoak dira: bezeroari arreta egitea, sare sozialak eta teknologia berriak merkataritzan nola aplikatu, eta irudi komertziala.
- **Diru kopurua / ikasleko:** 1.700 €, lau soldatatan banatuak.



- Urriaren 24ko 1493/2011 Erret Dekretuak ezarritakoaren arabera antolatu dira beka hauek, bertan arautzen baita izaera laborala ez duten praktikaldiak nola antolatu behar diren. Bekaren onuradunak, beraz, Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean egongo dira, han ezarritako mekanismoen bidez.

Informazio gehiago nahi izanez gero, hona jo:

AEnkomer

Tel.: 945123500 / 679749272

administracion@aenkomer.com